


• MATTIN •



Sexismoa hitzetan zehar

• MAIXAN ARBELBIDE •

[ERAKIZAN TALDEKO KIDEA]

Bi milagarren urte hontan Munduko Emazteen Martxa aitzina doa, pausoz pauso, emazteek bizi ditugun diskriminazioak salatuz eta gure eskakizunak plazaratuz, adibidez, harremanetan edo komunikabideetan, milaka hitzek egungotzen duten sexismoa agertaraz.

Ez ote dugu oraino suharki kantantzen Agur Jaunak, durdizatu gabe, idurtz gizonik baizik ez den gizartean.

Hitzetan zehar, egunero, emazteak ezabatuak dira, jendeen espezie biologikoaren izendatzeko giza edo gizon erabiltzen delarik, eta jendean arteko elkartasunaren adierazteko *anaitasuna* edo *denak anai* erratan delarik.

Giza ez da inondik ere neutroa, ez bere historia aldetik ez eta itxura aldetik ere: belarriak ez du engainatzen eta nahitaz gizon-ekin lotzen du. Azken denbora hauetan gero eta leku handiagoa hartu du euskararen giza horrek, nahiz tradizioak beste aterabiderik eskaini bai, hala nola *jende hitza*, *pertsona* erran nahi duena.

Horregatik Eraikizan talde feministak hasi du kanpainan bat, jende guziet zuzendua, eta berezki elkarte eta sindikatuetan, irakasuntzan artzuten direneri, kazetari eta idazleeri. Eskatzen dugu hitz neutroen —egiazki neutro— erabiltzea, emazteak barne hartzen dituzten kontzeptuen erraiteko, hala nola:

— *Jende* edo *pertsona*, giza edo *gizon* orde.

— *Jendarte*, *gizarte* orde, azken hau *gizartea* besterik ez baita.

— *Haurride* edo *sentide*, *anai* orde, emazteak barne direnean.

— *Haurdetasun* edo *senidetasun*, *anaitasun* orde.

Puntsean, guhaurek ere, kanpotikako deialar baten inarrosaldia be-

har ukan dugu, gure historiak, lege maltzurren bihurtzekin, gogo-ohiduretan ongi finkatu diskriminaziorerik ohartzeko. Deialar bat jn zaigu *Monde Diplomatique* ale berezi batek, 1999ko martxoan argitaratua: *Femmes, la mauvais genre?* (Emazteak, genero izarra?) izenburupean emazteen egoera salatzen duten hogeita hamar bat artikulu gotorren artean. *Hitzen sexismoa* argitaratu du A. Callamard-ek. Amnesty International-eko ikerketa politikoen koordinatzaileen ikuspegiarekin.

Oinarritzko artikulu horren argudioak ezin dira hitz laburrez bildu. Nahi duenak Luzien Etexzharretak euskaratua aurki dezake, azken ekaineko *Maiatz* aldizkarian. Argudio horiek daozken oharpen eta eskaera solietara mugatuko dira.

Gizon edo giza hitzaren bidez emazteen ezkatutzeak hierarkia bat sortzen du, diskriminatzailea. Hamazazpigarren mendetik dator, 1647an Vaugelas gramatikariak erran baitzuen «Maskulinoa femini- noa baino gorago dela, nobleagoa izanez». Ordu heietan, nesken heziketa Elitzaren esku zagon, esposumil, ama moldatzeko, etxeko lanetan trebe.

1789an, Iraultza denboran, *Déclaration Universelle des droits de l'Homme et de la Citoyenne* (Gizonaren eta herritarren eskubideen *aldarrikapen unibertsala*) onartu zen eta, hitzek dioten bezala, gizoneri baizik ez zen esleitzen; emazteak esplizitoki eskubide hoietarik kanpo gelditzen ziren, «gehienak ez-arrazionalak zirelakoan».

1791ean, Olympe de Gouges andereak idatzi zuen *Déclaration des droits de la Femme et de la Citoyenne* (Emazte eta herritarren eskubideen *aldarrikapena*), azalduz emazteak sortzen dela eta gizonaren eskubide berak dauzkala.

1793an, eskubide gisa edo, lepoa moztu zioten Gouges andereari.

1836an, lehen mailako eskolak ideki ziren neskenzat.

1880ean, neskenzako bigarren mailako eskolak sortu, baina modolo berezia zutenak: zazpi urtekoak izan orde, bost urtekoak ziren; latin, greko eta filosofiarik ez zuten irakasten. Bestalde, ez baxo-rik (batxiler-gorrik), ez eta unibertsitatek ere emazteentzat. Napoleonek zioen: «Emaztea gizonarena da, zuhaitza bere jabearena bezala, eta, politikaririk kanpo izanik, ez du eskolaren beharrik».

Horra, beraz, zer testuinguruan kontsaktatu zen *homme* (gizon) hitz maskulinoaren nagusitasuna. Orain errealitate sozialari egokitu nahi izan da, erranez *Homme-k* (maiuskularekin) emazteak ere kokatzen dituela. Eta guk diogu: orduan ez bazen hala, zergatik izan da orain?

Borrokaz borroka, gure eskubideak hobeto ditugu, nahiz baden oraino egitekorik, eta eskuratutak ere hauskor. Hitzek ez ote dute bizi-aldaketa segitu behar, emazteeri beren neurri osoa emanez? Callamard-ek dio: «Politikako berdintasuna bezain garrantzitsua da hizkuntzako berdintasuna; maskulinoa neutroa dela eta emazteak ere kondutan hartzen dituela nahi izaita ez da gehiago sinesgarria, bakarrik izena duenak baitu izana».

Ez da gure xedea gizonak guttiesa, ez gara heien kontra ari. Baina baktokari berea: guk ezin dugu neholaz ere gure burua gizontzat edo anaizat hartu.

Hitzek ekinzako kolorestatzen baitituzte, 2000. urtean ez ote laike konbeni zuzentasunaren kolorea hitz-ekintzetan? Mundua eta jendekak ez dira salgai, gure duintasunaren onarpena da gure erreibindakazioa.

LORE ERRIONDO

Txillardegiren porrota



Joan den asteazkenean, Miarrizten, Txillardegi lagun giroan liburuaren aurkezpenean, Jose Luis Alvarez Enparantza irakasleak porrotaz hitz egin zigan. Lagun giroan, hitzaldi gazi-gozoz hartan, oroimenaren osin nean murgilarazt gintuen irakasle emerituak. Piano jolea, ingeniaria, politikaria, fonetikan aditua, soziolinguista... horietan eta gehiagotan zerbait, norbait izan da Txillardegi. Iduriz, ez nahi zuena edo ez nahi adina bederen. Halere, irribarrea eragin zigan behin baino gehiagotan, kontalari trebea izaki, pasadizoak umore eta ironiaz apaindurik.

Pracaso hitzak berez badu halako hots lagarria, sarkorra, hauskorra, ozena, gordina. Txillardegiren ahotan, berriz, are lagarria- goa iruditu zitzaidan. Euskalgintzaren unibertsoan horrela gabiltza sarri, talka hor, talka han, nor bere ibilbidea gobernatu zenean.

Gainditzen gaituzten indarrek eramaten gaituzte harat-honat. Hala ere, Txillardegi ez da noraezen ibili den horietako bat izan, ez da guditxago ere. Euskaldun izanaren ogena egokitu zaio: behar denean, behar den horretan eta behar adina (neurritz kanpo gehienetan) ematea hain zuzen ere. Eman eta ekarri egin du eta horretan dihardu oraindino. Beti ez daukagu gustukoa aukeratzetik; gustuko lanetan bakarrik ibiliko bagina, euskararenak eta euskaldunonak aspaldi egina zukeen.

Txillardegi izanaren jarioan, mugarri dugu, hizkuntzan, politikan, unibertsitatean... Berari esker, besteak beste, izatearen kateak ez du etenik izan, etena eta urradura nagusitu zaigun garai honetan; ez da ez merito txikia. Hark dioten porrotari esker, irakaslearen itzalean gabiltzanok, ibilinan-ibilian, zerbait ikasi diogu eta lanean jarraitzeko aukera izango dugu, goaon izanik beti porrotaren itzala. Euskaldun izanaren erronkan, orain eta gero, bada zerbait.

...kornepa

MIKEL ELORZA

Korsikako oporrak

■ Korsikak ustekabea eman dio Lionel Jospini. Frantziako Errepublikaren egun handian, Lurralde Asanbleako hautesitzi korsikarrek udako oporretan burua okupaturik izateko adina motibo eman diote Matignongo nagusiari. Gehiago handi orain erabaki dute eskatzea orain diren bi departamendun administrazioak batu eta botere legegilea eratzeta. Horrek hankaz gora jartzen du Frantziako lurralde egitura, eta Konstituzioa bera ere bai. Jospinek zer egingo duen ikusteke dago, korsikarren hitza errespetatuko duen edo bera jan —korsikarren hitza errespetatzea agindu baitzuen—, eta konstituzionalismo itsu bati heldu. Dударik ez dago notizia herenegun sortzea —atzo plazaratzea, alegia— benetan mingarria eginen zitzaioela, propio aukeratuta ere ezin baita hobeto egin. Bastilla berriak eraikitzea pasako zitzaion burutik. La Santé urriti ez badago ere.